

Aldasgoradun herri arrantzalea

ELANTXOBE. Ogoño lurmuturrean barrura doan bidea zeharkatu eta udalerriaren edertasuna mirestu batera egingo dabez bisitariak: itsasoaren handitasuna, mendi magalen gogortasuna, arrantzale etxeen edertasuna ...

NON ZER

ELANTXOBE

Biztanleak: 550 inguru

Euskaldunak: %99



Lagako hondartzea atseden hartzeko paraje ederra da.

Zelan ailegau

Bilbotik Galdakaorako autobideari segidu. Galdakaotik Gernikara heltzeko BI-635 bidea jarraitu. Gero, Gernikatik Elantxoberako BI-2237 errepidea egin.

Ondarea

Bariko San Nikolas eliza; XIX. gizaldi hasieran eregi eben otoitz gunean dagoz margo barroko ikusgarriak. Udalerriko familia

arrantzaleen etxe politak. XIX. mende amaieran sortu eben kaia.

Aholkuak

Ordu biko mendi ibilaldirako zapata arinak eroatea gomendatzen da.

Jateko

Itxasmin jatetxea (946276174). Makues jatetxea (946276312). Merezi dau jatetxe biotan prestatzen dabezan bertako arrainak dastatzea.

Iban Ocio | ELANTXOBE

Bizkaiko herri bitxienetako da Elantxobe. Liluragarria, benetan. Batez be inguruok moldatu dabezan eragaitik. Aldatsek agintzen dabe udalerrian. Ogoño lurmuturrak inguratu egiten dauz baztarrak. Lagako hondartza be ondoan dago. Eta Ibarrangelu nekazal herria be bai. Mendia eta itsasoa urtzen diraneko paraje ederra da. Ganera, herri txikia da. Kuttuna. Arrantzale familek osotutakoa. Abegitsua. Egun pasa polita egiteko parebakoa.

Urigunearen osakera benetan da bitxia: kale estu eta aldapatsuek zeharkatzen dabe Elantxobe. Jaio zaneke sasoian, 1524. urtean, goialdean bizi ziran Ibarrangelutik ailegautako arrantzaleak —herrira arteko joan-etorriak aurretzen ebezan berton bizi ezker—. Astiro-astiro, familia barriz bete zan herria. Horreek etxeak eregi ebezan beheragoko lur eremuetan. Eta, azkenik, itsasora arteko mendi magala itxuraz aldatu eben.

Urigintza sistemeak, bada, herri maitagarria sortu dau. Elantxobera joaten diran bisitariak ondo gozauko dabe arrantzaleen etxebizitza mailakatuaz. Baina udalerrian badagoz erai-kin eder gehiago. San Nikolas Barikoaren eliza adibidez. 1803an egin eben otoitz gune neoklasikoa. Bertan ikusi leiteke Arantzazuko Andre Maria-ren santutegitik ekarritako erretratu barrokoa; eta Izaro irlako frantziskotarren komentutik ataratako irudi eta mihiseak. Eliza dago udalerriko talaia bararrean.

Beherago portua topau leiteke. 1783an eregi eben nasa, ontzi handienek babes hartzeko. Herri arrantzalea izanda, ingurutot ibiltan da Elantxobeko jenterik gehiena. Beraz, ingurutotako giroaz jabetzeko nahi-



ONINTZA ENBEITA

Elantxobeko baztarrak ondo ezagutu leitekez inguruko mendi bideetan barrura abiatu ezker.



ONINTZA ENBEITA

Arrantza da Elantxobeko jarduera ekonomiko garrantzitsuena.

koa da portu ondoko tabernetara joatea. Baina ez Madalenen, garagarriaren 22an. Orduan toperaino egoten dalako kaia. Eta herri osoa. Garai horretan, Euskal Herri eta Espainia osoko gazteak joaten dira Elantxobera jaia ospatzen.

Ogoño lurmuturra

Urigunetik haruntzago, mendian osteratxo lasaia egiteko aukera oparoa eskaintzen dau udalerriak. Ogoño eta Atxurkulun pasiaran aritzeko txangoa hasi geinke herriko plazan. Handik autobusendako plataforma

biribilera abiatuko gara. Kale Nagusia eta eliza igaro eta Berrokiz auzoan kanposantua ikusiko dogu. Segiduan, marka zurigorridun bideari ekingo deustagu, mendian gora.

Laster topauko dogu Olaeta etxaldea. Inguruneari begiratu arina emon eta itsasbazarren handitasunak harrituko dau bisitaria. Atseden apurra hartu ostean, barriro be lehenagoko bidetik jarraituko dogu. Olaeta Barrenengoa baserria heltzerakoan, Ogoño talaia doan bidexka egingo dogu. Eukalipto, pinu eta hatx artean helduko gara puntara. Ogoño talaia erakusten dau Kantauri Itsasoren gardentasuna. Bermeo eta Lekeitio banatzen dauzan itsasertzean ikusgai dagoz Izaro islea, Laga hondartzea...

Ogoñotik Atxurkulura joan leitekez ibiltarienak. Horretarako, barriro jaitsi beharko gara pinu eta eukaliptoz betetako gunera. Bertan hasten dan bidexkari segiduta errez topauko dogu Atxurkulu. Arteek eta hatxek gidatuko gaitue. Muinoan gagozala, aukera egin beharko dogu: edo bertan geratu aurretik prestatutako bazkaria dastatzen, ala oster be Elantxobera bueltatu, gosea herriko jatetxeetako produktu gozauk kentzeko.

Bata zein bestea egin, arratsaldea igarotzen Lagara joan geinke. Hondartzea txukuna da: are fin eta ur garbikoa. Seguru gaztetxoek poz ederra hartuko dabela. Izan be, olgetan ibilteko leku aproposa da. Halandabe, olatuak kontuz ibili beharko dogu. Haize zakarra edo itsaso handia danean ederto altzetan dira urak.

Tamainaz ondo txikia da Elantxobe. Dana dala, bertara joaten diran bisitariak ez dira damutuko. Aldasgoradun udalerrian gatxa da aspertzeta. Mendia, hondartzea, bertako sukaldaritza... Danetarik eta dantonetzako dago parajeotan.